

## Printzipio argia

**J**OAN den maiatzen Lurraren Gailurrera joan ziren 140 Estatuen ordezkari ofizialek, erakunde ezgobernutarren 900 bozeramaileek eta erakunde ekologistek, oso azterketa desberdinak eskaintzen dituzte Demografia-Aurrerabidea-Ingurugiroa triangeluari buruzko orekaren arazoaren zergatia eta konponbideen gainean. Halaxe da, ingurugiroaren gaiari aurre egiten dieten agente desberdinen artean, hartu behar diren neurriez eta batez ere berauek aplikatzen hasteko borondateaz dauden eritziak ez datoz bat. Baina guztiak, Riora joan zirenak eta joan ez zirenak ados daude arazoaren diagnostikoan eta lortu behar den helburuan: hurrengo belaunaldiei planeta habitagarri utzi behar diegu eta daramagun suntsidurazko erritmoan, hondamena laster atzeraezinezkoa gerta dakiguke.

Garbi dago asko kostako dela aldatzea, baita birnorabidetzea bera ere, nazioarteko joko ekonomikoaren arauak (Kanporako zorrak, nazioarteko merkatalgoa, multinazionalen kontrola). Garbi dago Lurraren Karta, klima-aladaketari edo bioaniztasunari buruzko nazioarteko hitzarmenak, Agenda 21 delakoaren laborazioa adierazpen instituzionalak baino ez direla. Baina garbi dago baita ere gure arrazonaketari funtsezko ideia bat, gure jarrera aldatu dezakeen ideia, gaineratzeko denbo-

raz gaudela: ingurugiroa, gaurko ondare eta biharko belaunaldien eskubide bezala gorde beharra dagoena.

Ixiltasunaren Munduaren Jacques Cousteauk lideratutako programa da "Biharko belaunaldien eskubideak", bere izena daraman fundazio baten bitartez, honako dibisa hau duelarik: " lurra ezagutu, maite izan eta babestu". EMFn konbentzitu gaitu ideiak. "Mendiko ingurugiroa babestea eta hobetzea" da Federakundearen helburuetariko bat (Estatutuaren 5. artikulua). Eta lanegiteko moduetariko bat da kontzientzia ekologista hedatzea, pentsatzeko era osasuntsuak bultzatuz lehen neurria bezala.

Animatu egin gara aldizkari honen bitartez "Biharko belaunaldien eskubideak" delako kanpaina honetara abiatzera. Pyrenaicaren ale honetan orri bat dago Karta-re testua duela, eta bertan kanpainarekiko elkartasunik lortzeko lekuri ere ba dago. Espero dugu federatuek eta harpidedunek irakur dezaten, kontzientzia daitezen, sinatu dezaten eta beren ingurumarian beste elkartasunen bat ere lor dezaten. Bidali itzazue gero Pyrenaicara, Abenduaren 31.a baino lehen.

20.000 sinadura lortu nahi dugu urtea amaitu baino lehen. Guztiok dugu hitza.

## Un principio claro

**L**OS representantes oficiales de los 140 Estados que asistieron el pasado mayo a la "Cumbre de la Tierra", los portavoces de las 900 organizaciones no gubernamentales y las organizaciones ecologistas ofrecen unos análisis muy distintos sobre las causas y las soluciones del problema del equilibrio en el triángulo Demografía-Desarrollo-Medio Ambiente. Efectivamente, las medidas que hay que tomar, y sobre todo la voluntad de empezar a aplicarlas, difieren entre los distintos agentes que se enfrentan al tema del medio ambiente. Pero todos, los que fueron y los que no fueron a Río, están de acuerdo en el diagnóstico del problema y en el objetivo a conseguir: hay que ceder a las siguientes generaciones un planeta habitable y, al ritmo de destrucción que llevamos, el desastre puede ser pronto irreversible.

Está claro que costará muchísimo cambiar incluso la reorientación de las reglas del juego económico internacional (la deuda externa, el comercio internacional, el control de las multinacionales). Está muy claro que la "Carta de la Tierra", los tratados internacionales sobre cambio climático o sobre biodiversidad, la elaboración de la "Agenda 21", son sólo declaraciones institucionales. Pero también está claro que estamos a tiempo de incorporar a nuestro razonamiento una idea clave, una idea

que puede modificar nuestra actitud: la de que hay que conservar el entorno natural como un patrimonio actual y como un derecho de las generaciones futuras.

"Los derechos de las generaciones futuras" es una campaña liderada por Jacques Cousteau, el del "Mundo del Silencio", a través de una fundación que lleva su nombre, con la divisa "conocer, amar y proteger" la tierra. En la EMF nos ha convencido la idea. "Velar por la protección y mejora del medio ambiente en la montaña" figura entre los objetivos de nuestra Federación (artículo 5 de los Estatutos). Y una de las formas de actuación es difundir la conciencia ecologista fomentando, como primera medida, unos modos de pensar sanos.

Nos hemos animado a lanzarnos a través de la revista a esta campaña por los "Derechos en las Generaciones Futuras". En este número de Pyrenica hay una hoja con el texto de la Carta y con lugar para conseguir adhesiones a la campaña. Esperamos de los federados y de los suscriptores a la revista que la lean, que se conciencien, que la firmen y que consigan otras adhesiones. Enviadlas luego a Pyrenica antes del 31 de diciembre.

Queremos conseguir 20.000 firmas antes de final de año. Todos tenemos la palabra.

Txomin Uriarte